BILBOKO UDALEKO GIZARTE EKINTZA SAILAREN ETA GURE LURRA GARAPEN KOMUNITARIOKO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, ZEINAREN BIDEZ DIRULAGUNTZA IZENDUN BAT BIDERATZEN BAITA, ZORROTZA AUZOAN ZENTRO KOMUNITARIOAREN PROGRAMA BAT GARATZEKOA, 2025AN.

BILDURIK

Alde batetik, JUAN IBARRETXE KARETXE Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Saileko zinegotzi ordezkaria.

Eta bestetik, IRIS VADILLO REIGADAS Andrea, GURE LURRA GARAPEN KOMUNITARIOKO ELKARTEAren (hemendik aurrera, GURE LURRA) (irabazi-asmorik gabeko elkartea; IFZ: G48261309; egoitza: Fray Juan, 33, Bilbao, ordezkari gisa.

Alde biek elkarri onartu diote Hitzarmen hau egiteko eta sinatzeko legezko gaitasun osoa, eta horretarako

ADIERAZTEN DUTE

I.- GURE LURRA ELKARTEAk integrazio sozial eta komunitarioaren aldeko esperientzia bat garatzen duela komunitateak irispidea izan dezan euren garapen pertsonal eta sozialerako baliabide tekniko eta fisiko berrietara.

Horretarako, AUZOKA zentro komunitario bat sortu dute, hainbat gizarte-, hezkuntza- eta kultura-eragilek Zorrotzan egiten duten lana indartzeko eta sendotzeko eta halako eragileen artean eta administrazioekin lan bateratuko sareak sortzeko.

CONVENIO ENTRE EL ÁREA DE ACCIÓN SOCIAL DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO Y LA ASOCIACION DE DESARROLLO COMUNITARIO GURE LURRA POR EL QUE SE CANALIZA LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA PARA EL DESARROLLO DE UN PROGRAMA DE CENTRO COMUNITARIO EN EL BARRIO DE ZORROTZA, EN EL AÑO 2025.

REUNIDOS

De una parte D. JUAN IBARRETXE KARETXE, Concejal Delegado del Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao.

Y de otra: Dª. IRIS VADILLO REIGADAS, actuando en representación de la ASOCIACION DE DESARROLLO COMUNITARIO GURE LURRA, asociación sin ánimo de lucro y con NIF G48261309 (en adelante GURE LURRA), con domicilio en la calle Fray Juan, 33, de Bilbao.

Ambas partes se reconocen plena capacidad legal para obligarse y suscribir el presente Convenio, y a tal fin

EXPONEN

I.- Que la ASOCIACIÓN GURE LURRA, viene desarrollando una experiencia en el barrio de Zorrotza destinada a favorecer la integración social y comunitaria que posibilite a la comunidad el acceso a nuevos recursos técnicos y físicos para su desarrollo personal y social.

Para ello han creado un Centro Comunitario AUZOKA a fin de fortalecer y reforzar el trabajo que desde diferentes agentes sociales, educativos y culturales se viene realizando en Zorrotza, así como de generar redes de trabajo conjunto, entre sí y con las distintas administraciones.

Gizarte Ekintza Sailak oso modu positiboan baloratzen du fundazio horren ibilbidea, eta egiten duen lanak badu zerikusia Gizarte Ekintza Sailaren eskumen eta helburuekin.

Hitzarmen honek dirulaguntzaren zuzeneko emakida eta proiektua garatzeko esku hartzen duten alderdien konpromisoak arautzen ditu. Hitzarmena Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen itzalpean eta haren 22. eta 27. artikuluak betez prestatu da.

II.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7.i), 73 eta 74. artikuluetan eta haiekin bat datozenetan xedatutakoarekin bat etorriz, administrazio publikoek eskumena dutela irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenek gizarte-zerbitzuen arloan parte hartu eta horiek sustatu ditzaten.

III.- Udaleko Osoko Bilkurak onetsitako Gizarte Ekintza Sailaren 2025ko ekitaldiko aurrekontuan **71.282,00** euroko diru-laguntza izenduna aurreikusita dagoela GURE LURRA ELKARTEArentzat, GURE LURRA elkarteak Zorrotza auzoan garatzen duen jarduera finantzatzeko. Finantzaketa 2025/31000/23120/4819900 kontura egingo da.

IV.- GURE LURRAk 2025ko ekitaldian garatu beharreko programaren proiektua aurkeztu duela, exekuzio-aurrekontuarekin batera (eranskinetan ezarri dira), eta Bilboko Udalaren Gizarte Ekintza Sailak modu positiboan baloratu duela aipaturiko programa egitea. **Hitzarmena eta eranskin biak sinatu behar dira.**.

Horren ondorioz, alderdi sinatzaileek

ERABAKITZEN DUTE

Hitzarmen hau sinatzea. klausula hauen arabera:

El Área de Acción Social valora positivamente la trayectoria de la Asociación, cuyo trabajo constituye materia afín a las competencias del Área de Acción Social y sus objetivos.

El presente convenio regulador de la concesión directa de la subvención asi como los compromisos de las partes que intervienen para el desarrollo del proyecto mencionado se ha confeccionado al amparo de la Ley de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre y en cumplimiento de sus artículos 22 y 27.

II.- Que la Ley de Servicios Sociales 12/2008 de 5 de diciembre, contempla en sus Art. 7.i), 73, 74 y concordantes, la facultad de las Administraciones Públicas para recurrir y fomentar la participación de la iniciativa privada sin ánimo de lucro, para el desarrollo de prestaciones en el campo de los servicios sociales.

III.- Que en el presupuesto del año 2025 del Área de Acción Social aprobado por el Excmo. Ayuntamiento Pleno, está prevista una subvención nominativa a favor de la ASOCIACIÓN GURE LURRA por un importe de **71.282,00 €** para la financiación de la actividad que la Asociación GURE LURRA viene desarrollando en el barrio de Zorrotza. La financiación se realizará con cargo a la partida 2025/31000/23120/4819900.

IV.- Que GURE LURRA ha presentado el Proyecto del programa a desarrollar en el ejercicio 2025, junto con su presupuesto de ejecución (se adjuntan como anexos) y que el Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao valora positivamente la realización del citado programa. **Ambos anexos deberán firmarse, al igual que el presente convenio.**

En consecuencia, las partes firmantes

ACUERDAN

La suscripción del presente Convenio, con sujeción a las siguientes cláusulas:

Lehena - XEDEA

Dirulaguntza bideratzea Zorrotza auzoan AUZOKA KOMUNITATE ZENTROAren programa bat kudeatzea finantzatzeko, 2025ko urtean.

Bigarrena - HELBURUAK

HELBURU OROKORRAK

1. Zorrotzako komunitatearen gizarte-ongizatearen alde jokatzea, baliabide tekniko eta fisikoak erraztuz, komunitateak parte har dezan eta inplika dadin garapenean.

2. Lankidetza sortzea zerbitzu publikoen eta pribatuen, elkarteen eta Zorrotza auzoan bizi diren eta premia duten pertsonen prebentzio- eta babes-prozesuetan esku har dezakeen gizarte-ehunaren artean.

3. Komunitatea sustatzeko jarduketak ahalbidetzea, helburuak partekatuz, batera egiteko jarduketak diseinatuz, baliabideak behar bezala erabilitz eta emaitzak ere partekatuz.

HELBURU ZEHATZAK

- Espazio integratzaile berriak jartzea auzoko jarduera garatzeko.

- Auzoko hezkuntza-, gizarte- eta kultura-eragileen artean lan-sareak eratzea, komunitatea garatzea erraztuko duen diziplinarteko lan-metodologia bat erraztuz.

- Komunitatearen parte-hartze aktiboa bultzatzea, haren garapen pertsonal eta soziala erraztuz.

- Hezkuntza-, gizarte- eta kultura-eragileen artean parte-hartzea eta inplikazioa indartzea eta sendotzea, espazio berriak sortuz eta baliabide berriz hornituz, Zorrotzako jarduera asoziatiboa bultzatuz.

Primera - OBJETO

Canalizar la subvención nominativa para financiar la gestión y coordinación de un programa de CENTRO COMUNITARIO AUZOKA en el barrio de Zorrotza, durante el año 2025.

Segunda - OBJETIVOS

OBJETIVOS GENERALES

1. Favorecer el bienestar social de la comunidad de Zorrotza, mediante la facilitación de recursos técnicos y físicos, fortaleciendo así su participación e implicación en el desarrollo de la misma.

2. Generar un trabajo de colaboración entre los servicios públicos y privados, las asociaciones, y el tejido social del entorno que pueden intervenir en los procesos de prevención y protección de las personas residentes en el barrio de Zorrotza que lo precisen.

3. Posibilitar actuaciones de promoción comunitaria compartiendo metas, diseñando actuaciones conjuntas, acompasando recursos y compartiendo resultados.

OBJETIVOS ESPECÍFICOS

- Habilitar nuevos espacios integradores para el desarrollo de la actividad del barrio.

- Conformar redes de trabajo entre los distintos agentes educativos, sociales y culturales del barrio, facilitando una metodología de trabajo interdisciplinar que favorezca el desarrollo de la comunidad.

- Potenciar la participación activa de la comunidad, favoreciendo su desarrollo personal y social.

- Fortalecer y reforzar la participación e implicación de los distintos agentes educativos, sociales y culturales, mediante la creación de nuevos espacios y la dotación

- Erakunde publikoen —Bilboko Udala— eta Zorrotzako elkarteen arteko lan-sare bateratu bat ezartzea, auzoko bizilagunen premia eta eskariei erantzuteko.

- Nahi duten pertsona, talde, baliabide eta gizarte-entitate guztien parte hartze soziala eragitea.

Hirugarrena - JARDUTEKO PRINTZIPIO OROKORRAK

Hitzarmen honen barruko jarduerak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearekin bat etorrita, lege horren 7. artikuluan jasotako printzipioetan oinarrituta burutuko dira. Hona hemen:

1. **Erantzukizun publikoa.** Botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan arututako prestazioen eta zerbitzuen eskaintza eta horietaz baliatzeko modua bermatuko dute. Nolanahi ere, eskarien lehenengo harrerako prestazioen zuzeneko kudeaketa publikoa bermatuko dute.

2. **Unibertsaltasuna.** Botere publikoek Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan jasotzen diren prestazioez eta zerbitzuez baliatzeko eskubidea bermatuko diete eskubide horren titular diren pertsona guztiei.

3. **Berdintasuna eta ekitatea.** Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek bermatuko dute prestazio eta zerbitzuez ekitatearen irizpidearen arabera baliatzea, baldintza sozial edo pertsonalengatik diskriminaziorik eragin gabe, hargatik eragotzi gabe ekintza positiboko neurriak eta aukera- eta tratu-berdintasunerako neurriak aplikatzea, eta beren jardunean gizon eta emakumeen berdintasunaren eta dibertsitate sexualaren ikuspegiak eta belaunaldi arteko eta kultura arteko perspektibak integratuz. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, hizkuntz araudia betetze

de nuevos recursos, potenciando la actividad asociativa de Zorrotza.

- Establecer una red de trabajo conjunta entre instituciones públicas –Ayuntamiento de Bilbao – y asociaciones de Zorrotza, dando respuesta a las necesidades y demandas de los vecinos y las vecinas del barrio.

- Promover la participación social de todas las personas, grupos, recursos y Entidades sociales que lo deseen.

Tercera: PRINCIPIOS GENERALES DE ACTUACIÓN

De conformidad con lo regulado en la Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales, las intervenciones objeto del presente convenio se regirán por los principios contenidos en el art. 7 de la antedicha Ley, tales como:

1. **Responsabilidad pública.** Los poderes públicos garantizarán la disponibilidad y el acceso a las prestaciones y servicios regulados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. En todo caso, garantizarán la gestión pública directa de las prestaciones de acceso a primera acogida de las demandas.

2. **Universalidad.** Los poderes públicos garantizarán el derecho a las prestaciones y servicios previstos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios a todas las personas titulares del mismo.

3. **Igualdad y equidad.** Las administraciones públicas vascas garantizarán el acceso a las prestaciones y servicios con arreglo a criterios de equidad, sin discriminación alguna asociada a condiciones personales o sociales, y sin perjuicio de la aplicación de medidas de acción positiva y de igualdad de oportunidades y de trato, e integrando en sus actuaciones la perspectiva de la igualdad de sexos y de diversidad sexual, así como las perspectivas intergeneracional e intercultural. Asimismo, las administraciones públicas vascas garantizarán, en cumplimiento de la normativa lingüística, la libertad de las

aldera, pertsonek euskara edo gaztelania erabiltzeko duten askatasuna bermatuko dute.

4. **Hurbiltasuna.** Gizarte-zerbitzuak, haien izaerak aukera ematen duenean, ahalik eta deszentralizaziorik handienarekin eskainiko dira.

5. **Prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa.** Bazterketa sortzen duten edo bizimodu autonomoa mugatzen duten egiturazko kausen azterketa eta prebentzioa egingo dute gizarte-zerbitzuek. Era berean, herritarrak beren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean integratzea izango dute helburu, eta normalizazioa sustatuko dute, beste arreta-sistema eta politika publiko batzuez balia daitezen lagunduz.

6. **Arreta pertsonalizatua eta integrala eta arretaren jarraitasuna.** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak arreta pertsonalizatua eskaini behar du, pertsona eta/edo familia bakoitzaren beharrizan bereziei egokitua eta haien egoeraren ebaluazio integral batean oinarritua, eta arreta jarraitua eta integrala izango dela bermatu beharko du, nahiz eta administrazio edo sistema bati baino gehiagori eragin.

7. **Esku-hartzeen izaera diziplinartekoa**. Talde-lana sustatuko da, bai eta esku-hartze sozialaren eremuan aritzen diren era bateko eta besteko lanbideetako ekarpenak eta egokiak diren guztiak aintzat hartzea ere.

8. **Koordinazioa eta lankidetza.** Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak koordinazio- eta lankidetza-betebeharraren arabera jardungo dira elkarren artean, bai eta irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenarekin ere. Koordinazio eta elkarlan horrek gainditu egin beharko du gizarte-zerbitzuen arloa, eta beste babes-sistema eta -politika publiko batzuetara ere hedatu beharko da.

9. **Gizarte-ekimena sustatzea.** Irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenak gizarte-zerbitzuen arloan parte har dezan sustatuko dute botere publikoek, bereziki Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman parte har dezan.

personas para utilizar el euskera o el castellano.

4. **Proximidad.** La prestación de los servicios sociales, cuando su naturaleza lo permita, responderá a criterios de máxima descentralización

5. **Prevención, integración y normalización.** Los servicios sociales se aplicarán al análisis y a la prevención de las causas estructurales que originan la exclusión o limitan el desarrollo de una vida autónoma. Asimismo, se orientarán a la integración de la ciudadanía en su entorno personal, familiar y social y promoverán la normalización, facilitando el acceso a otros sistemas y políticas públicas de atención.

6. **Atención personalizada e integral y continuidad de la atención.** El Sistema Vasco de Servicios Sociales deberá ofrecer una atención personalizada, ajustada a las necesidades particulares de la persona y/o de la familia y basada en la evaluación integral de su situación, y deberá garantizar la continuidad e integralidad de la atención, aun cuando implique a distintas administraciones o sistemas**.**

7. **Carácter interdisciplinar de las intervenciones,** promoviendo el trabajo en equipo y la integración de las aportaciones de las diversas profesiones del ámbito de la intervención social y cualesquiera otras que resulten idóneas.

8. **Coordinación y cooperación.** Las administraciones públicas vascas actuarán de conformidad con el deber de coordinación y cooperación entre sí, así como con la iniciativa social sin ánimo de lucro. Esta coordinación y cooperación deberá trascender del ámbito de los servicios sociales y extenderse a otros sistemas y políticas públicas de protección.

9. **Promoción de la iniciativa social.** Los poderes públicos promoverán la participación de la iniciativa social sin ánimo de lucro en el ámbito de los servicios sociales, y en particular en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.

10. **Herritarren parte-hartzea**. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintzan eta garapenean, pertsonak eta taldeak elkartasunezko lankidetzan ari daitezen sustatuko dute botere publikoek, bai eta erabiltzaileen parte-hartzea ere.

11. **Kalitatea**. Prestazio eta zerbitzu nagusiek kalitate-estandar gutxieneko batzuk izan ditzaten bermatu behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek.

Laugarrena -PROGRAMARI ATXIKITZEN ZAIZKION GIZA BALIABIDEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA JARDUERAK

GIZA BALIABIDEAK

GURE LURRAk zerbitzua behar bezala emateko behar den pertsonal egokia izango du, eta haren eskumena eta erantzukizuna izango da bakar-bakarrik enplegatuen eta boluntarioen lan-kudeaketa, indarrean dagoen lan- eta gizarte-araudia kontuan izanik.

Auzoka komunitate zentroa kudeatzeko, GURE LURRAk profesionalen talde batez hornituko du programa; hauek osatuko dute profesionalen talde hori:

- Bizkaiko Esku-hartze Sozialeko hitzarmenaren (2. taldea) araberako figura profesional bat, lanaldiaren % 75ean.
- Figura profesional bat (2. taldea) lanaldiaren % 40an urtarriletik abuztura, eta % 100ean irailetik abendura.
- Figura profesional bat (2. taldea) lanaldiaren % 57an urtarriletik martxora, % 24an apiriletik abuztura eta % 100ean irailetik abendura.
- Programa gainbegiratzeko figura profesional bat (2. taldea), lanaldiaren % 32an urtarriletik martxora, eta % 20an apiriletik abendura.
- Gizarte-integratzaile bat (3. taldea), lanaldiaren % 100ean, apiriletik abendura.

10. **Participación ciudadana**. Los poderes públicos promoverán la colaboración solidaria de las personas y de los grupos, así como la participación de las personas usuarias, en la planificación y el desarrollo del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

11. **Calidad**. Las administraciones públicas vascas deberán garantizar la existencia de unos estándares mínimos de calidad para los principales tipos de prestaciones y servicios.

Cuarta-RECURSOS PERSONALES, RECURSOS MATERIALES Y ACTIVIDADES ADSCRITAS AL PROGRAMA

RECURSOS PERSONALES

GURE LURRA contará con el personal necesario e idóneo para la correcta implementación del programa, siendo de su exclusiva competencia y responsabilidad la gestión laboral de los empleados/as y los voluntarios/as, con respecto a la normativa laboral y social vigente.

Para la gestión del centro comunitario Auzoka, GURE LURRA dotará al Programa de un equipo de profesionales constituido por:

- Una figura profesional en base al convenio de Intervención Social de Bizkaia (Grupo 2) con jornada al 75%.
- Una figura profesional (Grupo 2) al 40% de la jornada de enero a agosto y al 100% de septiembre a diciembre.
- Una figura profesional (Grupo 2) con jornada al 57% de enero a marzo, al 24% de abril a agosto y al 100% de septiembre a diciembre.
- Una figura profesional (Grupo 2) de supervisión del programa al 32% de enero a marzo, al 20% de abril a diciembre
- Una jornada de integrador social (Grupo 3) al 100% de la jornada desde abril a diciembre.

Programari atxikitako profesionalen izenak eta haien akreditazio profesionala (titulazio akademikoa eta curriculuma) jakinaraziko dizkie GURE LURRAk Gizarte Ekintza Sailari.

BALIABIDE MATERIALAK

GURE LURRAk Zorrotzako pilotalekuaren atzeko aldean eta Azoka plazako kioskoaren azpian dituen lokalak ditu programa hau garatzeko. Lokal horiek udal-titulartasunekoak dira, baina Udalak haien erabilera laga die Gure Lurra Garapen Komunitarioko Elkarteari eta Txori More kultura-elkarteari.

GURE LURRAk Gizarte Ekintza Sailari jakinaraziko dizkio programaren eta jardueren egutegia eta ordutegia eta programari atxikitzen zaizkion profesionalen ordutegia.

JARDUERAK

Programa hau garatzeko, nagusiki jarduera hauek egingo ditu GURE LURRAk:

1.-Kudeaketa-tresnak diseinatzea eta mantentzea.

2.-Erabiltzaileak diren taldeen ekimenak koordinatzea eta gizarteari itzultzea.

3.-Zenbait proposamenen garapena: “Emakumeentzako osasuneko eta ongizateko espazioa”, “Osasunaren astea”, “Kilima”, “Eguzkitan blai”, “Liburu-truk”, helduentzako komunitate-antzerkia, kultur arteko topaketak, eta Gizarte Ekintza Sailak proposatzen dituen beste batzuk.

4.-“Bigarren eskuko azoka”, “Osasunaren Astea”, “Munduko Sukaldeak”, Helduentzako Antzerki Komunitarioa, Emakumeen Musika Topaketa, Arte Ederretako ikasleekin koordinatutako erakusketak, udako kontzertu akustikoak, Nazioarteko Egunak proposamen bereziekin ospatzea, Komunitate Zentroaren Urteurrena, kultura arteko topaketak eta Gizarte Ekintza sailak proposaturiko beste batzuk.

GURE LURRA proporcionará al Área de Acción Social la relación nominal de las figuras profesionales asignadas al programa así como su acreditación profesional (titulación académica y currículo).

RECURSOS MATERIALES

GURE LURRA para el desarrollo de este programa cuenta con locales en la parte trasera del frontón de Zorrotza y bajo el Kiosko de la Plaza Azoka. Los citados locales son de titularidad municipal si bien se ha realizado la cesión de su uso por el Ayuntamiento a la Asociación de Desarrollo Comunitario Gure Lurra y a la Asociación Cultural Txori More.

GURE LURRA proporcionará al Área de Acción Social el calendario y horario de desarrollo del programa y de sus actividades, así como el horario de los profesionales asignados al programa.

ACTIVIDADES

Las principales actividades que GURE LURRA llevará a cabo en desarrollo de este programa serán:

1.-Diseño de herramientas de gestión y su mantenimiento.

2.-Coordinación de las iniciativas de los grupos usuarios y retorno social.

3.-Desarrollo de las propuestas “Espacio Salud y Bienestar para la mujer”, “Semana de la Salud”, “Kilima”, “Eguzkitan blai”, “Liburu-truk”, Teatro Comunitario para personas adultas, encuentros interculturales y otras a propuesta del Área de Acción Social.

4.-Desarrollo de las propuestas “Mercadillo de segunda mano”, “Semana de la Salud”, “Cocinas del Mundo”, Teatro Comunitario para personas adultas, Encuentro Musical de Mujeres, Exposiciones coordinadas con alumnos/as de bellas artes, conciertos acústicos de verano, Celebración de días Internacionales con propuestas expecificas, Aniversario del Centro Comunitario, encuentros interculturales y otras a propuesta del Área de Acción Social.

5.-Ahulezia-egoeran dauden adingabeei hezkuntza-arloko errefortzua emateko zerbitzua planifikatzea eta Emakumearen Nazioarteko Eguna.

Bosgarrena – UDALAREN KONPROMISOAK

1. Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Sailak beharrezko lankidetza teknikoa emango du, Zorrotzako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko koordinatzailea eta Gizarte Partaidetzako Negoziatuko buruengandik abiatuta.

2. Gizarte Ekintza Sailak **71.282,00** euroko diru-laguntza emango du programa finantzatzeko, 2. eranskinaren (*"aurrekontu-fitxa"*) arabera banakatua.

3. Gizarte Ekintza Sailak bi alditan egingo du Hitzarmen honen ordainketa: %80, onartua eta sinatua izan ostean; eta gainerako %20, berriz, 2025. urteko azken hiruhilekoan; horretarako, lehenengo seihilekoan egindako jarduerei buruzko memoria aurkeztu behar da 2025eko irailaren 30a baino lehen Erregistro Orokorraren bidez.

Lehen ordainketa egin ahal izateko, pertsonalari dagokionez laugarren baldintzan xedatutakoa bete behar da. Pertsonalari dagokion dokumentazioa Erregistro Orokorraren bidez aurkeztu beharko da.

Seigarrena - GURE LURRAREN KONPROMISOAK

1. Hitzarmen honen helburu den programa kudeatzea, hitzarmenean azaldutako printzipio, helburu eta metodologiarekin bat etorriz.

2. Bere taldearen lanaldia eta egutegia antolatzea, ondorio horiei dagokienez lan-arau orokorretan eta zehazki hitzarmen kolektiboan ezarritakoa betez.

3. Koordinazioaz arduratuko den taldeko pertsona izendatzea.

5.-Actividades en torno al Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer y el Día Internacional de la Mujer.

Quinta.- COMPROMISOS MUNICIPALES

1. El Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao proporcionará la colaboración técnica necesaria a partir de la Jefa del Negociado de Participación Social y la persona Coordinadora del Servicio Social de Base de Zorrotza.

2. El Área de Acción Social contribuirá a la financiación del Programa una subvención de **71.282,00** €, desglosada conforme al anexo 2 *("ficha de presupuesto").*

3. El Área de Acción Social efectuará el abono del presente Convenio en dos veces: 80%, una vez haya resultado aprobado y firmado y el 20% restante, el último trimestre del año 2025, previa presentación antes del 30 de septiembre de 2025 vía Registro General, de un informe memoria sobre las actuaciones llevadas a cabo durante el primer semestre.

Para hacer efectivo el primer pago será necesario el cumplimiento de lo dispuesto en la cláusula cuarta, en relación al personal. La documentación relativa al personal se presentará vía Registro General.

Sexta - COMPROMISOS DE LA ASOCIACIÓN

1. Gestionar el programa objeto de este convenio en base a los principios, objetivos y metodología explicitada en este convenio.

2. Organizar la jornada de trabajo y el calendario laboral del Equipo cumpliendo a estos efectos, lo establecido en las normas laborales de carácter general, y en concreto, el convenio colectivo.
3. Designar la persona del Equipo que realizará las tareas de coordinación.

4. Sei hilabeteko memoria bat aurkeztea (2025ko irailaren 30a baino lehen), eta han egindako jardueren eta esku-hartzearen analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa egiteko.

5. Programak arreta ematen dien pertsonen datu-base eguneratu bat edukitzea, Gizarte Ekintza Sailaren esku egongo dena.

6. Dokumentazio ofizialean (memoriak, txostenak eta abar) erakunde bien logoa erabiltzea.

7. Bere taldearen lan-jardunaldia eta egutegia antolatzea, ondorio horietarako lan-arloan izaera orokorraz indarrean dauden legeak beteta eta, bereziki, hitzarmen kolektiboa.

8. Hitzarmenaren urtebeteko indarraldia amaitu eta bi hilabeteko epean (**2026ko martxoaren 1a baino lehen**), programan egindako gastuaren justifikazioko kontua aurkeztu behar dute (Diru-laguntzei buruzko Legearen Erregelamenduaren 72. artikuluan ezarritakoaren arabera), ondoren deskribatzen denez:

a) Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen **urteko memoria bat**, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak zehaztuko dituena. Memoriak sistema bat eduki beharko du datuak sexuaren, adin tarteen eta jatorrizko herrialdearen arabera bereiziz biltzeko eta kudeatzeko. Era berean, hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-sexista hartu beharko da kontuan aurkezten den dokumentazioan. **Memoria hau 2026ko otsailaren 1a baino lehen aurkeztu behar da euskaraz eta gaztelaniaz Erregistro Orokorraren bidez.** Era berean, diruz lagundutako ekintzak zein hizkuntzatan gauzatu diren zehaztu beharko dute.

b) **Diru-sarreren eta gastuen balantze ekonomikoa**. Balantze horretan,

4. Presentar una memoria semestral (antes del 30 de septiembre de 2025), que recoja el análisis cuantitativo y cualitativo de la intervención realizada y de las actividades realizadas.

5. Mantener una base de datos actualizada de las personas atendidas por el programa, que estará a disposición del Área de Acción Social.

6. Utilizar el logo de las dos instituciones en la documentación oficial (memorias, informes, etc.).

7. La Asociación asume la obligación de contratar un seguro de responsabilidad civil para la cobertura de los riesgos por daños en personas o cosas, derivados de la actividad desarrollada por sus profesionales.

8. Dentro del plazo de dos meses desde la finalización del año de vigencia del Convenio (**antes del 1 de marzo de 2026**) deberán presentar, (de conformidad a lo establecido en el artículo 72 del Reglamento de la Ley de Subvenciones), cuenta justificativa del gasto realizado en el programa, según se describe a continuación:

a) **Una Memoria Anua**l justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. La memoria deberá contener un sistema de recogida y gestión de datos desagregados por sexo, franjas de edad y país de origen. Asimismo deberá tener en cuenta la utilización no sexista del lenguaje y de la imagen en la documentación aportada. **Dicha memoria deberá presentarse en euskera y castellano antes del 1 de febrero de 2026 vía Registro General. Del mismo modo, deberan detallar en que idioma se han llevado acabo las acciones objeto de la subvencion.**

b) **Balance económico de ingresos y gastos**, que contendrá un estado representativo de los gastos incurridos en la realización de las actividades

gutxienez, hauek jasoko dira: diruz lagundutako jardueretan egindako gastuen egoera-orri adierazgarria, multzoka, eta, hala bada, hasieran izan duten aurrekontua (hitzarmeneko 2. ERANSKINean jasota daude) eta egon diren desbideratzeak.

Justifikazioari buruzko zenbait ohar:

9. Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta hitzarmenean ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ezingo da izan inola ere merkatu-balioa baino handiagoa. Inbertsioen amortizazioak ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuen artean sartzen, horiek egiaztatzea oso zaila delako. Era berean, gauzazko diru-sarrerak deitutakoak ezin joko dira «diru-sarrera»tzat, arrazoi beragatik.

10. Gastuak programa betearazteko aurreikusitako epearen barruan egin direla justifikatzen duen jatorrizko dokumentazioak honako hauek bereizi beharko ditu ondorio horietarako:

11. Programaren betearazpenarekin **zuzenean lotutako kostuak** oso-osorik justifikatu beharko dira fakturekin edo haien pareko froga-balioa duten gainerako dokumentuekin. Gastuen justifikazioa duten agirietan, datu hauek sartuko dira, nahitaez:

12. Entitate onuradunaren identifikazioa.

13. Gastuaren xedearen deskripzioa; xede horrek zuzeneko lotura izan beharko du programaren betearazpenarekin.

Era berean, justifikazioa duten dokumentuak justifikatzen duten programari buruzkoak bakar-bakarrik izango dira.

Salbuespen moduan, jarduerak egiten dituztenak enpresak edo profesionalak ez diren pertsonak direnean, hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren **hartze-agiria** agertzen den

subvencionadas, debidamente agrupados, y, en su caso, las cantidades inicialmente presupuestadas (que figuran en el ANEXO 2 al presente convenio), y las desviaciones acaecidas.

Algunas consideraciones sobre la justificación:

9. Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en el convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado. No se admiten como gasto subvencionable las amortizaciones de inversiones, por las dificultades de comprobación de las mismas. Así mismo, tampoco podrán considerarse como “ingresos”, los denominados ingresos en especie, por idéntico motivo.

10. La documentación original justificativa que acredite los gastos efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, ha de distinguir, a estos efectos:

11. Los **costes directamente** relacionados con la ejecución del programa, que deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente. Los documentos que soporten la justificación de gastos, incluirán, en todo caso, los siguientes datos:

12. La identificación de la entidad beneficiaria.

13. La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.

Asimismo, los documentos que soporten la justificación se circunscribirán únicamente al programa que justifican.

Con carácter excepcional, en supuestos en que ocasionalmente, las actividades sean llevadas a cabo por personas que no ostenten la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la

dokumentuak aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailea identifikatzen duen dokumentuaren (NAN, AIZ edo pasaportea) kopiarekin aurkezten bada, eta haiekin batera aurkeztu beharko dira nahitaez, baldin zenbatekoa 200 eurotik gorakoa bada, jasotzailearen banku-kontuan ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentua.

presentación de documentos en los que figure el **recibí** del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte) de la persona perceptora, a los que se acompañará necesariamente, cuando su importe sea superior a 200 €, el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.

Pertsonal-gastuak nominak eta gizarte segurantzako kotizazioak aurkeztuz egiaztatuko dira.

Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la seguridad social.

14. Entitateak aurrekontuko fitxan (hitzarmen honen 2. eranskina) adierazi dituen **zeharkako kostuei** dagokienez, errekerimendu espresik ezean, ez da eskatuko agiri bidez justifikatzeko. Kostu hauek diruz lagundutako jardueraren erakunde edo pertsona onuradunari atxikiko zaizkio, kontabilitateko printzipioen eta arauen arabera, arrazoizko zatian eta betiere, kostu horiek jarduera egin den aldikoak badira. Jarduerari atxikitako kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen zenbatekoa baino handiagoa. Programa aurrekontuen fitxan adierazita dago (hitzarmen honen 2. ERANSKINA).

14. Con respecto a los **costes indirectos** señalados por la entidad en la ficha de presupuesto (anexo 2 del presente Convenio), salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes habrán de imputarse por la persona o entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, la imputación llevada a cabo pueda resultar superior al porcentaje de los costes directos del programa subvencionado, que figura en la ficha de presupuestos (ANEXO nº 2 al presente convenio).

15. Justifikazio-memoriako dokumentazioa Erregistro Orokorraren bidez aurkeztu beharko da.

15. La documentación relativa a la Memoria justificativa, deberá presentarse vía Registro General.

16. Gizarte Ekintza Sailak justifikazio ekonomikoa beste erakunde batzuen aurrean aurkeztu behar izanez gero, elkarteak betebehar horiek betetzeko behar den guztian laguntzeko konpromisoa hartzen du.

16. En el caso de que el Área de Acción Social tenga otras obligaciones de justificación económica frente a otras instituciones, la Asociación se compromete a colaborar en todo lo necesario para dar cumplimiento a dichas obligaciones.

17. Bilboko Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandakoekin. Gizarte Ekintza Sailari jakinarazi behar zaio diruz lagundutako programa ordaintzeko izan dituzten beste laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk. Datu horiek jakin bezain laster egin beharko da jakinarazpena eta agiri bidez justifikatu. Edozelan ere, diru-

17. La subvención concedida por el Ayuntamiento de Bilbao es compatible con las de otras administraciones o entes públicos o privados. Se tiene que comunicar al Área de Acción Social la obtención de otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos que financien el programa subvencionado. Esta comunicación deberá realizarse tan pronto como se conozca y justificarla

laguntzen eta beste iturri batzuen bidez lortzen den finantzaketa ezin izango da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan. Handiagoa izanez gero, dagokion kopurua itzuli beharko dio Udalari.

documentalmente. En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida, por subvenciones y otras fuentes, no podrá resultar superior al coste del programa subvencionado. En caso de que resultara superior, deberá proceder a reintegrar al Ayuntamiento el importe correspondiente.

18. Entitateak konpromisoa hartzen du programa garatzean sortzen diren agirietan Bilboko Udalaren logoa jartzeko; esaterako, gizarte eta hezkuntzaren arloko proiektuetan, txostenetan, informazioa emateko triptikoetan eta programari eta programako jarduerei buruzko publizitatean.

18. La entidad se compromete a insertar el logotipo del Ayuntamiento de Bilbao en los documentos resultantes del desarrollo del Proyecto, tales como proyectos socio-educativos, informes, trípticos informativos y publicidad sobre el Proyecto o las actividades del mismo.

Orobat aplikatuko zaie Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoa, publizitate aktiboari dagokionez, legearen 5. artikuluaren edukiarekin eta mugekin, urtebetez 100.000 eurotik gorako laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten entitate pribatuei edota gutxienez beren urteko diru-sarrera guztien % 40 laguntza edo diru-laguntza publikoa dutenei, betiere gutxienez 5.000 euroko zenbatekora iritsiz gero.

Será de aplicación lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la información pública y Buen Gobierno, en lo relativo a la publicidad activa con el contenido y las limitaciones del artículo 5 de la Ley, a las entidades privadas que perciban durante el período de un año ayudas o subvenciones públicas en una cuantía superior a 100.000 euros o cuando al menos el 40% del total de sus ingresos anuales tengan carácter de ayuda o subvención pública, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros.

Programaren kanpoko ordezkaritza, bai entitateen, erakundeen, organismoen, pertsona publiko edo pribatuen arteko harremanetarako, bai hedabideekiko harremanetarako, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio Gizarte Ekintzako Sailari, Prentsa Kabinetearekin koordinatzearren eta komunikazioaren xedea jakin dezan eta haien edukiak eta ordezkaritza adostua izan dadin, edo, hala balegokio, Udalak gauzatu dezan, hala behar duela irizten badio.

La representación externa del programa, tanto a efectos de relación entre entidades, instituciones, organismos, personas públicas o privadas, como con los medios de comunicación deberá ser comunicada previamente al Área de Acción Social para su coordinación con el Gabinete de Prensa, a los efectos de que conozca el objeto de la comunicación y para que los contenidos y la presentación de los mismos sea consensuada o, en su caso, realizada por el Ayuntamiento, si así se valorase.

Era berean, publiko egin beharko du udal-finantzaketa, Udalaren logotipoa ezarriz sortzen dituen material inprimatuetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), zerbait oroitzeko plaketan, bitarteko elektronikoetan, ikus-entzunezkoetan zein idatzizko hedabideetan argitaratutako iragarkietan. Horretarako, Gizarte Ekintza Sailak udalaren logotipo berria emango dio entitateari. Era berean, hizkuntzaren eta

